

5. Iruña-Veleia: lehen, orain eta gero

Gontzal Fontaneda Orille



Gontzal Fontaneda Iruña-Veleia argitzeko aspaldi lanean ari da eta besteak beste webgune bat dauka, gai hau ondo azaltzeko:

<https://fontaneda.net/veleia/Pagina/v100.html>

Badu ere beste webgune bat: <https://www.fontaneda.net/>

Iritzi artikulu asko idatzi ditu azken bolada honetan euskeraz zein gazteleraz.

2008-11-19an Arabako Foru Aldundiak Eliseo Gilen arkeologi taldea bota zuen Iruña-Veleiako aztarnategitik eta 2019-05-04an salaketa aurkeztu zuen Gasteizko epaitegian aurkitutako grafitoak faltsutzeagatik ondareari kalte egitea eta iruzur egitea leporatuz.

Bestalde, benetako zigor mediatiko izugarri bat hasi zen, grafitoak aizunak zirela eta gainera faltsukeria Eliseo Gilek berak egin zuela kaleratuz.

Ulertezina da grafitoak faltsuak direla dioten erakundeek froga lortzeko laborategi aditueta aspaldi eraman ez izatea, ezta aztarnategia gainbegiratuan induskatu ez izatea, orain berriro grafito gehiago agertzen diren ala ez jakiteko.

Alderantziz, 2010ean, Euskal Herriko Unibertsitateak, aztarnategiko bere zuzendaritzari hasiera emango zion goizean, hondeagailu bat erabili zuen 6.000³ lur ateratzeko, barruan egon zitekeen guztia barne.



Horiek horrela, inork ez du faltsutasunaren batere frogarik aurkeztu, baizik eta iritziak, teoriak, aieruak eta hipotesiak bakarrik. Hona sei adibide:

1.- Lehen adibidea asmo txarrekoa da: Eliseo Gil kanporatu eta hurrengo egunean, faltsukeriaren aldeko eraso mediatiko etengabearen barruan, Unibertsitateko kimikari batek haxe azaldu zuen periodikuan: "*Bi pieza lotzeko berehalako itsasgarria aurkitu da*".

Egia zen, baina eguneroko ohitura da; zerbait apurtuta agertzen bada, itsatsi egiten da duintasunez erakusteko. Baina irakurle askori eraso mediatiko hartan kola modernoaren albistea agertzeak, besterik azaldu gabe, faltsukeriaren susmoa eman zion.

2.- Bigarren adibidea iritzia besterik ez da. Hizkuntzalari batek grafitoak faltsuak zirela salatzen zuen. Arrazoen artean hauxe zioen: "*Ez da oso ulergarria hiriaren izena, Veleia, latinezko iturri berantiar batzuetan B letraz agertu arren, euskal idazkunean beti V letraz idatzita agertzea*".



"Oso ulergarria" dela frogatu zen geroago: 2012an, Unibertsitateko zuzendari berriaren azpian, aztarnategian erromatar garaiko oparri bat agertu zen, eta idazkunean Veleia izena irakurtzen da V letraz. Haren ustea ez zen froga, iritzi okerra baizik, antzinako froga fisiko bat agertu zelako.

3.- Hirugarren adibidea iritzia da, hau ere. Faltsutasuna defendatzen zuen beste hizkuntzalari bat latinezko akatsetan oinarritzen zen. Azaltzen zuenez, grafito batek honelaxe zioen: "*Eneas Anquises et Venus filii*", eta latin landuaz "*Eneas Anchisae et Veneris filius*" izan behar zuela argudiatzen zuen. Hori egia da, baina ez du zertan faltsua izan. Grafitoa zaharra izan liteke eta hainbat arrazoi egon: grabatu zuenaren akatsa, Iruña-Veleian horrelaxe hitz egitea gerta liteke. Zuberoan "*Zein etorriko da?*" esan beharrean, "*Zoin jinen da?*" esaten dute, eta biak euskara dira.

Edonola ere, azterketa linguistikoak oso interesgarriak dira, baina ezin froga dezakete idazkunak faltsuak direnik, akatsak edo tokian tokiko aldaerak daudela edo teoria berriak aurkitzeko baizik.

4.- Laugarren adibidea aitortpena da. Hizkuntzalari batek Aldundiak enkargatutako txostenean eskatu dioena argi eta garbi aitortzen du: "*Eskatutako txostenak ez zuen inolaz ere jasotzen euskal idazkunak onargarriak izan zitezkeen egoerarik eratzeko eskea*". Nahikoa da.

5.- Bosgarren adibidea hipotesia da, Ertzaintzaren argiketakoa. Orrialde baten izenburuan hauxe idazten du hain zuzen: "**HIPOTESIA**". Harrigarria da benetan polizi argiketa batean hipotesiak mahaigaineratzea. Ikus dezagun hipotesia: "... Batez ere, [aizunketa] bi puntutan egin ahal izan zen: *aztarnategian bertan, lekukorik ez zegoenean, hau da, gauetan, asteburuetan, jaizubietan, oporraldietan eta abar. Beste pieza faltsu multzo bat egileek kontrolatutako beste leku batzuetan egin ahal izan zen (bizileku, lokal, tailer batean...)*". Argi dago nork, non eta nola ez dakiela. Frogaren orde zuzeneko hipotesi hutsa da, izenburuan aitortzen duenez.

6.- Seigarren adibidea kontraesana da. IPCE edo Espainiako Kultur Ondarearen Erakundearen aditu-txostenean geologo batek pieza bateko grafitoa horrelaxe kalifikatzen du: "*Grafito garaikidea. Antzemandako arazoak: altzairu herdoilgaitzezko zatikiak idatziaren trazaduran*". Hala ere, gero kontraesanean erortzen da grafito berari buruz hauxe aitortuz: "*Badaiteke antzemandako altzairu herdoilgaitzezko zatikiak garbitzeko prozesuan sartu izana, haien osaera bisturietako orrien osaerarekin bat datorrelako*". Hau da, garaikidea dela pontifikatu ondoren, agian ez da garaikidea, "badaiteke" zaharra izatea.

Azkenik, batere frogarik gabe, 2020-02-03an hasi zen epaiketa. Saio batean, pieza arkeologikoak garbitzen lan egiten duen zaharberritzaile batek testigantza harrigarri bat azaldu zuen. Adierazi zuenez, *Iruña-Veleiako zeramikaz betetako hogeitaz gutxiago iritsi zitzaizkien lantegira. Garbitu gabe zeuden. 2008an garbitzen hasi ziren, eta zeramika batean zarakarren azpian aparteko grafito bat ikusi zuten. Horren berri eman zioten Aldundiari, eta zeramika gehiago garbitzeari uzteko erantzun zien. Garbitu gabeko kutxa guztiak hartu zizkieten. Lekukoak ez daki kutxa horiek non dauden. Testigantza honi epaiak ez zion jaramonik egin, aipatu ere ez. Haatik, kutxa horietako zeramikak, oraindik gordeta baleude eta ikutu gabe, aztarnategitik atera berri bezala leudeke.*

Por lo demás, el informe requerido no contemplaba en ningún caso la demanda de diseñar un escenario en el que —como segunda o tercera trinchera— las inscripciones vascas pudieran ser aceptables; i.e., dicho de otra manera, mi labor no ha sido —ni debía ser— el señalar o proponer cuándo, cómo o en qué (reales, probables o inverosímiles) escenarios, tal tipo de lengua era compatible con lo que sabemos, creemos saber o estamos seguros de ignorar en el marco de la diacronía de la lengua vasca.

Gero 2020-06-08an epaia agertu zen. Argi eta garbi uzten zuen Eliseo Gilek zeramiketan ebakidurarik egin ez zuela; hortaz, grafitoak faltsuak ez direla. Alde batetik, haxe zioen: "*ez da behar bezala frogatu grafito garaikideak [Eliseo Gilek] berak egin zituenik*". Baina bost aldiz errepikatzen zuen pieza arkeologikoetan ebakidurak Eliseo Gilek "*bere kabuz edo beste pertsonen bidez*" egin zituela.

Bi esaldi horiek, hain zuzen, Eliseo Gil errugabea dela erakusten zuten, ebakidurak "bere kabuz" egin ez zituela, "behar bezala frogatu ez delako", ezta beste "beste pertsona" gaizkide batzuen bidez ere, pertsona horiek existitzen ez direlako, ez dute izenik, abizenik, nortasun-agiririk; identifikatzeko hamaika urte eduki arren, epaiak ez daki nor diren eta.

Hala eta guztiz ere, epaiak Eliseo Gil kondenatu egin zuen.

Orain Eliseo Gilek aurkeztu duen helegitea gaineko epaitegian dago ebatzi zain.

Aldi berean, 2020-07-23tik gose-greban dago lagun bat Eusko Legebiltzarrari betidaniko eskaera egiten: noiz grabatu diren jakiteko, grafitoak laborategi adituetara eramatea eta, ea orain ere grafito gehiago agertzen diren jakiteko, aztarnategian indusketa gainbegiratu egitea.

Etorkizunean, helegitearen emaitza edozein dela ere, Iruña-Veleiako grafitoak Euskal Herriaren historia-ondarea izanik, legez euskal herritarren ondasunak direnez, babestu behar dira. Grafitoak ez desagertzea eta ez suntsitzea behar du Iruña-Veleiak, Euskal Herriak ere behar du; azkenean zientifikoki aztertzea daramatzatenean, ez bakarrik Euskal Herriaren altxorra izan daitezke, munduko kulturarena ere bai.

Arazo honen gertaerak <https://www.veleia.fontaneda.net> webgunean daude, baita agiriak eskuragarri ere.

